


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2019/12/03)</b>	Irakurle taldea	Yoseba Peña-ren <b>HARIAK</b> liburuari buruz solasaldia egin da eta hurrengo data apirilaren 21a finkatu da, Anjel Lertxundi-ren <b>ZORION PERFEKTUA</b> liburua izango delarik ardatz.	
Hurrengo saioa: 2019/12/17	Herriko produktuak	Gabonetara begira bi lote osatu dira: handia 60€ eta txikia 30€, bertso afarian berari buruzko informazioa eman eta erreserbak egiteko telefonoa ere jarriko da. Neguko produktuen atala osatzen saiatu gara, ahalik eta ekoizle gehienek parte hartuz. Intxaurrak: Mendeun eta Atinbarrena Kiwiak: Miraballes Errezil sagarrak: Urteaga	Neguko produktuen orria prestatu eta bertso afarian banatu.
	Euskaraldia	Abenduak 6an egingo den euskaraldiko ekitaldian entitateek izango dutela pisurik handiena adostu da. Ekitaldia nola egin eta bakoitzak zertaz arduratu behar dugun antolatu gara. Ekitaldia Ostatuko sarreran izango dela aurreikusten dugu honako egitaraua izango delarik. <ul style="list-style-type: none"><li>- Sarrera</li><li>- Bizipenak eta desioak txarteltxoetan idatzi eta sarea osatu</li><li>- Kike Amonarrizen testu bateratua irakurri</li><li>- Talde argazkia</li></ul>	Jendearen bizipen eta desioen zerrenda osatu
<b>(2019/12/17)</b>	Olentzeroren etorrera eta herriko produktuen azoka	Abenduaren 21 arratsaldean, Olentzeroren etorrerarekin batera izango diren ekitaldien jakinarazpena egin eta banatu da. Honekin batera, herriko haurrei, Olentzerori eskaerak egiteko gutuna ere banatu zaie.	
Hurrengo saioa: 2020/01/14	Herriko produktuen azoka	Herriko produktuen azoka eguraldiaren arabera kokapena antolatu.	



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/12/10)</b>  Hurrengo saioa: (2020/01/07)	Euskara sustatzeko ekintzak eta diru-laguntzak	Euskara sustatzeko ekintzak zeintzuk izango diren definitu dira eta bakoitzari egokituko zaion diru-laguntza kopurua ere adostu da, guztira 4000€ aurreikusten dira 2020ko aurrekontuetarako: Euskara ikasteko laguntzak, 2000€; tokiko prentsa eta hedabideak, 1000€; Web orria eta irudi korporatiboa, 400€ eta Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen duten erakundeei zuzendutako diru-laguntzak, 600€. Diru-laguntzak eskatzen dituztenek bete beharreko baldintzak ere zehazten hasi gara: erroldatuta egotea, adibidez.	Idazkariarekin batera, lanketari jarraipena eman
	Hitzaldia: Ramon Ayerza	Igandean, abenduaren 15ean Ramon Ayerza arkitektoak emango duen hitzaldiaren jakinarazpena prestatu da eta banaketa antolatu da	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena 2019/12/18</b>  Hurrengo saioa: (2020/01/15)	Abenduaren 11ko bilera	Aldundian errepide saileko zuzendariarekin egindako bileran, Alegiren egoeraz hitz egin zen, eta Aldundiak konpromisoa hartu zuen euri uren arazoa konpondu eta guneko asfaltoa berritzeko proiektu bat proposatzeko.	Proiektu hau esku artean dugunean berriz bilduko gara.
	Udaletxeko obra	Ostatuko tximiniak hogeituro urteko erabileraren ondoren, arazoak eman izan ditu, eta egoera aztertu ondoren akatsak antzeman direnez tximinia osoa eta su-lekua ere aldatzea erabaki da. Ganbarako proiektuari dagokionez, urtarrilean proiektua arkitektoen "colegio"-ra bidaltzeko moduan izango da	Barandiaran enpresari su-leku berriaren aurrekontua eskatu zaio
	Mahaiak	San Lorentzon eta Alegiako presa ondoan kokatu dira zortzi lagunentzako moduko egurrezko mahai bana	